









## Irakaskuntza

Gailu eta baliabide digitalak aplikatzea irakaskuntza-prozesuan, irakaskuntza-jardunbideak hobetzeko. Irakaskuntza digitaleko esku-hartzeak behar bezala egituratu, kudeatu eta antolatzea. Irakaskuntzarako formatu eta metodo pedagogiko berriak probatu eta garatzea.

### Jarduerak

- ◆ Ikasgelako teknologiak erabiltzea irakaskuntzaren lagungarri, hala nola arbel digitalak eta gailu mugikorrak.
- ◆ Eskolak egituratzea, halako moldez non jarduera digitalek (irakasleek gidatuek nahiz ikasleek gidatuek) batera ikasketa-helburua indartuko baitute.
- ◆ Ikasteko saioak, jarduerak eta elkarrekintzak ingurune digital batean ezartzea.
- ◆ Edukiak, lankidetzak eta elkarrekintzak ingurune digital batean egituratu eta kudeatzea.
- ◆ Ikustea irakasleek gidatutako esku-hartze digitalek –aurrez aurre edo ingurune digital batean- nola lagundu diezaieketen hobekien ikasketa-helburuei.
- ◆ Hausnartzea aukeratutako estrategia pedagogiko digitalen eraginkortasunaren eta egokitasunaren gainean, eta malgutasunez egokitzea metodoak eta estrategiak.
- ◆ Irakasteko formatu eta metodo pedagogiko berriak probatu eta garatzea (atzekoz aurrerako ikaskuntza, kasu).

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Teknologia digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> irakasteko.	Ez dut gailu edo eduki digitalik erabiltzen irakasten dudanean, edo oso gutxitan.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	Eskura dauden teknologia digitalak <b>oinarrizko moduan erabiltzea</b> irakasteko.	<p>Eskura ditudan ikasgelarako teknologiak erabiltzen ditut, hala nola arbel digitalak, proiektagailuak eta ordenagailuak.</p> <p>Ikasketa-helburuaren eta -testuinguruaren arabera aukeratzen ditut teknologia digitalak.</p>
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Eskura dauden teknologia digitalak <b>modu esanguratsuan txertatzea</b> irakaskuntza-prozesuan.	<p>Gailu digitalak (ikasgelako teknologiak eta ikasleen gailuak, kasu) irakaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan txertatzeko lanak antolatzen eta kudeatzen ditut.</p> <p>Eduki digitalak, hala nola bideoak eta jarduera elkarreragileak, irakaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuetan txertatzeko lanak kudeatzen ditut.</p>
<b>Aditua (B2)</b> 	Teknologia digitalak berariaz erabiltzea <b>estrategia pedagogikoak hobetzeko</b> .	<p>Testuinguru soziala eta elkarrekintza moduak aintzat hartzen ditut, teknologia digitalak txertatzean.</p> <p>Teknologia digitalak erabiltzen ditut irakasten dudanean, metodologia gehiago baliatzearen.</p> <p>Ikasketa-saioak edo bestelako elkarrekintzak ezartzen ditut ingurune digital batean.</p>
<b>Liderra (C1)</b> 	Teknologia digitalen erabilera <b>antolatzea, ikuskatzea</b> eta malgutasunez <b>egokitzea</b> estrategia pedagogikoak hobetzeko.	<p>Ikasketa-saioak egituratzen ditut, jarduera digitaletan (irakasleek gidatuek nahiz ikasleek gidatuek) batera ikasketa-helburua indartu dezaten.</p> <p>Edukiak, ekarpenak eta elkarrekintzak ingurune digital batean egituratzen eta kudeatzen ditut.</p> <p>Etengabe ebaluatzen dut baliabide digitalen bidez hobetutako irakaskuntza-estrategien eraginkortasuna, eta horren arabera berrikusten ditut nire estrategiak.</p>
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea <b>irakaskuntza-estrategiak hobetzeko</b> .	<p>Ikastaroak edo ikasketa-moduluak ematen ditut irakaskuntza-ingurune digital batean.</p> <p>Irakasteko formatu eta metodo pedagogiko berriak probatzen eta garatzen ditut.</p>










## Orientazioa

Tresna eta zerbitzu digitalak erabiltzea ikasleekiko elkarrekintza –banaka zein taldean– hobetzeko, ikaskuntza-saioen barruan eta haietatik kanpo. Teknologia digitalak erabiltzea orientazio eta laguntza egokia eta espezifikoa emateko. Orientazioa eta laguntza emateko forma eta formatu berriak probatu eta garatzea..

### Jarduerak

- ◆ Komunikazio-tresna digitalak erabiltzea berehala erantzuteko ikasleek besteak beste eskolako lanei buruz dituzten galderei eta zalantzei.
- ◆ Ikasketa-jarduerak jartzea ingurune digitaletan, ikasleen orientazio-premiak ikusi eta premia horiei erantzutearren.
- ◆ Ikasleekin elkarrekintzan jardutea elkarlanerako ingurune digitaletan.
- ◆ Ikasleek ikasgelan duten jokabidea baliabide digitalen bidez ikuskatzea, eta orientazioa ematea, behar dutenean.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen aurrerapausoak urrunetik ikuskatzeko eta behar denean esku hartzeko, autoerregulaziorako aukera emanez betiere.
- ◆ Teknologia digitalak erabiliz orientazioa eta laguntza emateko forma eta formatu berriak probatu eta garatzea.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Teknologia digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> ikasleekin elkarrekintzan jarduteko.	Ez naiz komunikatzen ikasleekin baliabide digitalen bidez, hala nola e-mailez, edo oso gutxitan.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	<b>Oinarrizko</b> estrategia digitalak erabiltzea ikasleekin elkarrekintzan jarduteko.	Teknologia digitalak erabiltzen ditut, hala nola e-maila edo txata, ikasleek besteak beste eskolako lanei buruz dituzten galderari eta zalantzei erantzuteko.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea ikasleekiko <b>elkarrekintza</b> hobetzeko.	Komunikazio digitaleko bide bat erabiltzen dut ikasleekin haien galderari eta zalantzei erantzuteko.  Maiz egoten naiz ikasleekin harremanetan, eta haien arazoak eta galderak entzuten ditut.
<b>Aditua (B2)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea <b>monitorizazioa</b> eta <b>orientazioa</b> hobetzeko.	Ikasleekin elkarrekintzan jarduten dut erabiltzen ditudan ingurune digitaletan; haien jokabidea ikuskatzen dut, eta banakako orientazioa eta laguntza ematen diet, beharren arabera.  Teknologia digitalak erabiliz orientazioa eta laguntza emateko forma eta formatu berriak probatzen eta garatzen ditut.
<b>Liderra (C1)</b> 	Teknologia digitalak <b>estrategikoki</b> eta <b>berariaz</b> erabiltzea orientazioa eta laguntza emateko.	Ikasketa-jarduerak jartzen ditudanean ingurune digitalean, lehenbizi ikasleen orientazio-premiak ikusten ditut, eta premia horiei erantzuten diet, hala nola laguntzarako edo ohiko galderetarako atal batekin edo bideo tutorialekin.  Ikasgelan ikasketa-jarduera digitalak aplikatzean, ziurtatzen dut ikasleen jokabidea baliabide digitalen bidez ikuska dezakedala, orientazioa emateko, beharren arabera.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea <b>orientazioa emateko modua berritzeko</b> .	Teknologia digitalak erabiliz orientazioa eta laguntza emateko forma eta formatu berriak garatzen ditut.









## Elkarlanean ikastea

Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen arteko elkarlana sustatu eta hobetzeko. Ikasleak trebatzea talde atazetan teknologia digitalak erabil ditzaten, komunikazioa, elkarlana eta ezagutza elkarlanean sortzeko gaitasuna hobetze aldera.

### Jarduerak

- ◆ Elkarlanean ikasteko jarduerak egitea, gailu, baliabide eta informazio-estrategia digitalak erabiliz.
- ◆ Elkarlanean ikasteko jarduerak egitea ingurune digital batean, hala nola blogak, wikiak eta ikaskuntza kudeatzeko sistemak erabiliz.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleek elkarlanean arituz ezagutza truka dezaten beren artean.
- ◆ Ikasleak ikuskatu eta gidatzea elkarlanaren bidez ezagutza sortzen dutenean ingurune digitaletan.
- ◆ Ikasleei elkarlanean egindako lana baliabide digitalen bidez aurkez dezatela eskatzea, eta horretan laguntzea.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea berdinen arteko ebaluaziorako eta elkarlanaren bidezko autoerregulazioaren eta berdinen arteko ikaskuntzaren lagungarri gisa.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea elkarlanean ikasteko formatu eta metodo berriak probatzeko.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Teknologia digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> elkarlanean ikasteko jardueretarako.	Ez dut inoiz pentsatzen, edo oso gutxitan, ikasleek nola erabil ditzaketen teknologia digitalak elkarlanean jarduerak edo atazak egiteko.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera <b>bultzatzea</b> elkarlanean jarduerak egiteko.	Elkarlanean jarduerak edo proiektuak egitean, ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzen ditut lana egiteko, hala nola Interneten bilaketak egiteko edo emaitzak aurkezteko.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Teknologia digitalak <b>aplikatzea</b> elkarlanean jardueren diseinuan.	Elkarlanean jarduerak diseinatzen eta aplikatzen ditut, non ikasleek teknologia digitalak erabili behar baitituzte elkarlanean ezagutza sortzeko, hala nola informazioa lortu eta trukatzeko.  Ikasleei eskatzen diet elkarlanean egindako lana teknologia digitalak erabiliz dokumentatzeko, hala nola aurkezpen digitalen, bideoen eta blog-sarreraren bidez.
<b>Aditua (B2)</b> 	<b>Ingurune digitalak</b> erabiltzea elkarlanaren bidezko ikaskuntzaren lagungarri.	Elkarlanean jarduerak jartzen ditut ingurune digitaletan, hala nola blogetan, wikietan, moodlen eta ikasteko ingurune birtualetan.  Ikasleek ingurune digitaletan elkarlanean aritzean dituzten elkarrekintzak ikuskatzen eta gidatzen ditut.  Teknologia digitalak erabiltzen ditut ikasleek ezagutzak parteka ditzaten beste ikasleekin eta ikaskideen feedbacka jaso dezaten, bai eta banakako atazetan ere.
<b>Liderra (C1)</b> 	Ingurune digitalak erabiltzea ikasleek <b>elkarlanean ezagutza sortzeko</b> eta <b>ikaskideak ebaluatzeko</b> .	Elkarlanaren bidez ikasteko jarduerak ugari diseinatzen eta kudeatzen ditut, non ikasleek zenbait teknologia erabiltzen baitituzte elkarlanaren bidez ikerketa egiteko, dokumentuak aurkitzeko eta beren ikaskuntza hausnartzeko, ikaskuntza-ingurune fisiko eta birtualetan.  Teknologia digitalak erabiltzen ditut berdinen arteko ebaluaziorako eta elkarlanaren bidezko autoerregulazioaren eta berdinen arteko ikaskuntzaren lagungarri gisa.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen arteko elkarlanean <b>berrikuntzak egiteko</b> .	Teknologia digitalak erabiltzen ditut elkarlanean ikasteko formatu berriak aurkitzeko.







## Ikaskuntza autoerregulatua

Teknologia digitalak erabiltzea autorregulatutako ikaskuntza-prozesuei laguntzeko, hala nola ikasleei aukera emateko beren ikaskuntza planifikatu, ebaluatu eta horretaz hausnartzeko, aurrerapausoak ikusteko, ezagutza partekatzeko eta sormenezko konponbideak bilatzeko.

### Jarduerak

- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea (blogak, egunkariak eta plangintzarako tresnak, kasu) ikasleei beren ikaskuntza planifikatzeko aukera emateko.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleei frogak biltzeko eta aurrerapausoen berri jasotzeko aukera emateko, hala nola audio- edo bideo-grabaketak eta argazkiak.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea (eportfolioak eta ikasleen blogak, kasu) ikasleei beren lana jaso eta erakusteko aukera emateko.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleei beren ikaskuntza-prozesua beren kabuz ebaluatzeko eta horretaz hausnartzeko aukera emateko.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Teknologia digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> ikaskuntza autoerregulatutako.	Ez dut inoiz pentsatzen, edo oso gutxitan, ikasleek nola erabil ditzaketen teknologia digitalak autoerregulatutako jarduerak edo atazak egiteko.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera <b>bultzatzea</b> autoerregulatutako ikasketa-jardueretan.	Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzen ditut banakako ikasketa-jardueren eta -atazen lagungarri, hala nola informazioa lortzeko edo emaitzak aurkezteko.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Teknologia digitalak <b>aplikatzea</b> autoerregulatutako ikasketa-jardueren diseinuan.	<p>Ikasleak teknologia digitalak erabiltzera bultzatzen ditut frogak biltzeko eta aurrerapausoen berri jasotzeko, hala nola audio- eta bideo-grabaketak, argazkiak eta testuak sortzeko.</p> <p>Teknologia digitalak erabiltzen ditut (eportfolioak eta ikasleen blogak, kasu) ikasleei beren lana jaso eta erakusteko aukera emateko.</p> <p>Teknologia digitalak erabiltzen ditut autoebaluaziorako.</p>
<b>Aditua (B2)</b> 	Ingurune digitalak erabiltzea autoerregulatutako ikaskuntzari <b>erabateko</b> laguntza emateko.	<p>Teknologia eta ingurune digitalak erabiltzen ditut (eportfolio, blog, egunkari eta plangintzarako tresnak, kasu) ikasleei ikaskuntzaren etapa guztiak kudeatzeko eta dokumentatzeko aukera emateko, hala nola planifikatzeko, informazioa lortzeko, dokumentatzeko, hausnartzeko eta autoebaluaziorako.</p> <p>Ikasleei laguntzen diet autoebaluaziorako irizpide egokiak garatzen, aplikatzen eta berrikusten, teknologia digitalen laguntzarekin.</p>
<b>Liderra (C1)</b> 	<b>Modu kritikoan hausnartzea</b> autoerregulatutako ikaskuntza sustatzeko erabiltzen diren estrategia digitalen gainean.	Autoerregulatutako ikaskuntza sustatzeko erabiltzen ditudan estrategia digitalen egokitasunaz hausnartzen dut, eta etengabe hobetzen ditut nire estrategiak.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Formatu eta/edo <b>metodologia</b> pedagogiko digital <b>berriak</b> garatzea autoerregulatutako ikaskuntzarako.	Formatu eta/edo metodologia pedagogiko digital berriak garatzen ditut norberak zuzendutako ikaskuntza sustatzeko.